AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

# Nazional mailan aritzeko aukera berria urnietarrentzat

Urnieta Kirol Elkarteko senior mailako taldeak igoerako ligaxka jokatuko du. Duela bi urte bezalaxe, partida zirraragarriak izango dira. Eskubaloi taldeko John Sanchez kapitainak ligaxkaren gako guztiak eskaini dizkio Aiurriri / 4-5

ZATARAIN

Elkarbizik Urigainen solasaldia antolatu zuen martxoan, 'Bizikidetzaren aldeko memoria' izenburupean. AIURRI

# Memoria eta bizikidetza ulertzeko modu ezberdinak

Elkarbizi taldeak, Oreki fundazioarekin elkarlanean, 2019ko hitzaldi eta tailer zikloari hasiera eman dio. Martxoaren 30ean foroa antolatu zuten Urigainen, 'Bizikidetzaren aldeko memoria' izenburupean.

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Euskal Herrian hainbat elkarte ari dira lanean, hausnarketak eta proposamenak plazaratuz. Batik bat, ETAk jardun armatua amaituz geroztik hartu dute indarra eta protagonismoa. Asko dira eta nork bere ikuspegia agertzen du, konplexua den gai baten inguruan. Maiz ez dute bat egiten hainbat kontzeptuen gainean: iraganarekiko oroimen kritikoa, ETAren eta estatuaren biolentziei eman beharreko tratamendua, biolentziaren legitimazioa eta desligitimazioa, biktimei zor zaien egia eta justizia, biktimen gizarte funtzioa, etorkizunerako irakaspenak, zer da bakea eta zer bizikidetza…

### Azalpenak eta parte hartzea

Ordu erdiko mintzaldia egin zuten bost elkarteetako ordezkariek. Eta ondoren, entzuleen txanda heldu zen. Pertsona askok altxatu zuten eskua parte hartu nahian, baina moderatzaileak ezin izan zien denei aukera eman, denbora faltagatik. Gogoan elkarteko Ariztimuñok Andoainen iraganean gertatutako hainbat pasarte hartu zituen gogoan; mahaikideak eztabaidarako jartzen ari ziren gai eta kontzeptuak orokortasunetik konkretura jaitsi nahi izan zuen, eta horrek zenbait entzuleren iritziak eragin zituen, hain zuzen.

## "Giza eskubideen urraketa berberei eskubide berberak dagozkie"

**JON MOÑUX** ARGITUZ

Gipuzkoako udalerri askotan, tarteamn Andoainen, memoria txostenak landu ditu, herri mailan gertatu izan diren giza eskubideen urraketen erregistroa eginez.

- "Egia guztiak biltzea da gure irizpide nagusia, alegia, motibazio politikoa duten indarkeriazko gertakizun guztiak: erailketak, torturak, bahiketak, estortsio ekonomikoak, mehatxuak, jazarpenezko biolentziak… ETA, CCAA, BVE, GAL, gerra zikina edo polizien gehiegikeriak eragindakoak. Ekiparaziorik, ekidistantziarik eta jerarkiarik ezarri gabe".
- "Giza eskubideen adierazpen unibertsala da gure erreferentzia, esparru teorikoari dagokionez. Batez ere bere printzipioetako bat gurea egiten dugu: giza eskubideen urraketa berberei eskubide berberak dagozkie, diskriminazio ezaren printzipioari jarraituz; berdin dio nor izan zen urraketaren eragilea".
- "Abiapuntua guretzat 1956an dago, frankismoak lehen salbuespen egoera ezarri zuenetik, eta frankismo berankorrarekin, trantsizioarekin eta demokraziarekin jarraitzen du. Hots, 1956tik hasi eta gaur arte. Ikerketa bat egiterakoan, antolakuntzaren eta metodologiaren aldetik egokia da oroimen historikoa eta oroimen hurbila bereiztea".
- "Arlo juridikoari buruz, nazioarteko hainbat doktrina hartze ditugu kontuan, biktima kontzeptuaz eta haien eskubideaz nazioarteko legediak jasotzen dituena, eta baita Espainiako estatuko eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko legedia ere".
- "Metodologiari dagokionez, motibazio politikoko gertakizun guztien kronologia egiten dugu, herri bakoitzeko dokumentuak eta testigantza eta iritzi pertsonalak bilduz, zinegotziak edo zinegotzi ohiak, biktimak, kultur eta gizarte mailako eragileak, preso ohiak… Aniztasuna bermatzen saiatzen gara, baina gure asmoa ez da inkesta soziologikoa egitea".
- "Herriz herriko txosten horiek ez dira biktimen eta urraketen zerrenda soil bat. Gertatu denaz hausnartzeko eta oroimen hurbilari ekarpena egiteko tresna da".
- "Iraganetik irakaspenak ateratzea da helburua. Alegia, iragana ahaztu gabe, ibilbide eta pentsaera ezberdineko herritarren artean memoria partekatzen saiatzea da giltzarria".
- "Herriz herri lantzen ditugun txostenen amaieran, zenbait iradokizun planteatzen ditugu. Besteak beste, honakoak: biktima guztienganako aitortza bideratzeko ekimenak sustatzea; biktimen arteko hurbilketa prozesuak garatzea; txostenaren inguruan eztabaida irekitzea herriko esparru ezberdinetan; egiaren bila gehiago sakontzea, datuak ikertuz eta txostenaren mugak gainditzu; transmisioa bermatzea, gazteei zuzendurikoa lehenetsiz; hezkuntzarako plan berariazkoak eratzea, ikastetxeekin bat eginik; Oroimenaren eta Bizikidetzaren arloan elkarlanerako topalekuak sustatzea, kontseilu edo foroak eratuz, gizarte eragile, biktima eta udal ordezkarien artean".

Jon Moñux. AIURRI

## “Komeni da Andoainen bizi izan zen izuaren giroa gogoratzea, Euskadiko beste herrietan bezala”

**EUGENIO ARIZTIMUÑO** GOGOAN

Gesto por la Paz-eko kideek osatzen dute, batez ere. Indarkeriaren deslegitimazioa bilatzen dute.

- “Komeni da Andoainen bizi izan zen izuaren giroa gogoratzea, Euskadiko beste herrietan bezala. 1990eko azken urtetan eta 2000ko hasieran izan ziren bost gertakari ekarriko ditut hona, kronologikoki. Lehena: Jarrairen panfleto batek zioen: “kontuz txibatoak, Munipa kolaboratzaileak. Jelkidez jantzitako zipaioak, sasi ezkertiar azpi-sugeak. Estatu zapaltzaile terrorista hau sustengatzen ari zarete”. Bigarrena: Andoaingo HBk publiko egin zuen idatzia, non zinegotzi emakume batengatik zioen azalez aldatzen zuen suge politikoa zela. Hirugarrena: panfleto mehatxagarria, diana batek inguratutako zinegotzi irudi batekin eta Euskal Herritik aldegiteko eskatuz. Laugarrena: Andoaingo bizilagun bati bidalitako idatzi anonimoa, Gesto por la Pazen ekitaldietan parte hartzeagatik “ezustekoa” eduki dezakeela gogoratuz. Eta bosgarrena: maiatzaren 8an, Andoaingo kaleetan zehar ikusitako pintadak. Kale Berriko atzealdean bi topatu nituen: “Foro de Ermua, hijos de puta” , “ De Lacalle jodete asesino”. Plazaolako atzealdean, berriz, beste batak hala zioen: “Jose Luis Lopez de Lacalle, jodete, ETA herria zurekin. Presoak gose greban, elkartasuna. Giza eskubideak non daude?”. Ez ziren 24 ordu pasa hil zutenetik”.
- “Oroimen duina aldarrikatzeko, ezinbestekoa da erantzukizunak identifikatzea eta bereiztea, eta baita, nor den biktima eta nor ez. Biolentzia, batez ere, ETAren terrorismoak ekarri du. Sufrimendu handia eragin du”.
- “ETA diktaduraren testuinguruan jaio izanak ez du justifikatzen bere ibilbidea. ETAren ekintzen erantzukizuna bere kideena da soilik, libreki erabaki baitzuten biolentzia praktikatzea".

Eugenio Ariztimuño. AIURRI

## “Irizpide politiko eta ideologikoak etikaren gainetik jartzen dira”

**PATXI MEABE** ETIKER

Setien gotzainaren inguruan eratutako Etikarte Fundazioarekin du harremana.

- “Ez da gauza berbera eragindako mina eta samina aitortzea, eta, eragindako min eta samin injustua aitortzea. Iruditzen zait sarkastikoa dela nork bere burua biktima irredento gisa aurkeztea, iraganean indarkeria ilegitimoa babestu eta justifikatu duenean; edo eta, hirugarren munduan gertatzen diren indarkeriaren aurkako adierazpenak egitea, eta aitzitik, begiak ixtea gauza berbera gertu-gertu eduki dugunean”.
- Zoritxarrez, ikusten ari gara Gasteizko Legebiltzarreko ponentzian guztiek ezin dutela onartu iraganean ez zela arrazoirik egon terrorismo politikoa praktikatzeko. Irizpide politiko eta ideologikoak etika humanistikoaren gainetik jartzen dira”.
- “Ezeren gainetik, argi adierazi behar da gertatu dena ezin dela errepikatu. Pertsonen duintasuna eta bizitzeko eskubidea edozein ideien gainetik daudela.

Patxi Meabe. AIURRI

## “Gizarte zibilak izan behar du bake eta bizikidetza dinamikaren bultzatzaile nagusia”

**AGUS HERNAN** FORO SOZIALA

Elkarte, sindikatu eta norbanakoek osatutako kolektiboa da. Desberdinen arteko elkarrizketarako espazioa izateko jaioa da.

- “Iñaki Arrizabalaga biktimak dioen bezala, mikro kontakizunekin egin beharko dugu aurrera, eta eraiki denok partekatu dugun espazioa, denok gustura sentitzeko moduan. Bost osagai beharko dira: 1.- Bakearen eta giza eskubideen oinarritutako etorkizun baten aldeko konpromisua; 2.- Gertatu den guztia jakitea eta mahaian jartzea; 3.- Kontakizun guztiek entzun behar dira; 4.- biolentzia praktikatu edo babestu duten eragile guztiek irakurketa kritikoa egin behar dute; 5.- Biktimak gustura egon behar dute espazio horretan”.
- “Oroimenean gaian, bi errealitate daude. Batetik, jadanik 22 udalerrietan ezberdinen arteko elkarrizketak sortzeko espazio edo foroak abian jarri dira, eta zenbaitetan agiriak kaleratu dituzte.
- “Gizarte zibilak izan behar du dinamika horren bultzatzaile nagusia. Eta horretarako auker asko daude: 1.-Andoainen eta beste 22 udaletxetan abian jarri diren dinamiken antzekoak indartuz, eta ezberdinen arteko espazioetatik eraikiz. 3.- Beste eskarmentutatik ikasiz, nahiz eta geuk geure etorkizuna eraiki behar dugula jakin; 4. Alderdi politikoen oroimenaren eta bizikidetzaren ponentzian sakonduz”.
- “Atzera begiratu behar da atzeranzko ispiluarekin, baina aurrea begiratuz. Eztabaidei irtenbidea topatu behar zaie, ez gara korapilatu behar bidean. Kontsentsuak topatu behar dira politika publikoak egingo dituztenekin, alde politikoekin alegia.
- “Belaunaldi gazteen artean dagoen ahazturak kezkatzen gaitu.

Agus Hernan. AIURRI

## "Memoriari dagokionez, Nafarroan ikuspegi murriztailea izan da"

**JUANA GARCIA** ZABALTZEN

Nafarroako ikuspegitik ari dira lanean.

- "Nafarroan sustrai politikoa duen biolentziari lotutako desmemoria egon da historian zehar. Demokrazian bi biolentzia mota izan dira, ETAk eta eskuin muturrak eta estatuko funtzionarioek eragindakoa. Aldi berean, bi ikuspegi murriztaile egon dira: soilik frankismoko biolentzian sakondu nahi duena, eta soilik ETAren biolentzian sakondu nahi duena”.
- “Frankismoa eta demokrazia bizi izan ditugun belaunaldiak nolatan ez gara eraildakoen alargunak edo seme-alabak eta horien hiltzaileak identifikatzeko gai izan? Hona Nafarroan desmemoria eragin duten zenbait arrazoi: 1. Giza faktorea: sufritu zuten familiek beren oinordekoak babestu nahi izan zituzten; 2. Herriz herriko errepresioan makina bat herritarrek hartu zuten parte, gizarteari deserosoegia egin zitzaion atzera begira jartzea; 3. Biktima gehien zeuzkaten PSNk eta UGTk ez zuten parte hartu trantsizioan piztu zen mugimendu memorialistan”.

Juana Garcia. AIURRI

John Sanchez *Jonky* UKE taldeko kapitaina da. JUANCARUKE

# “Helburua igoera lortzea da; ligaxka irabazita bada, hobe”

**JOHN SANCHEZ** UKE SENIOR TALDEKO ESKUBALOI JOKALARI ETA KAPITAINA

Maiatzaren 1ean hasiko da ligatxoa; Bergara, Legazpi, Munttarpe, Escolapios eta Askartza izango ditu aurkari UKEk. Garailea 2. Nazional Mailara igoko da

**ANDONI URBISTONDO** URNIETA

Indarberritzen ari da John Sanchez *Jonky*, Urnietako Kirol Elkarteko eskubaloi senior taldeko erdikoa eta kapitaina (23 urte). Oporretan dago, baina Pedagogia Egokitzapen Ikastaroa on-line (CAP) egiten ari da. Konfiantza badu, igoera zuzena lortu nahi dutela dio. Ligako lehen erdian jokalari berriak akoplatzeko izan zituzten zailtasunak atzean utzita. Egutegiarekin kontent dago, “Legazpiren kantxa saihestu eta fasea etxean bukatuko dugulako”.

**Zenbat urte, dagoeneko UKE eskubaloian?**

Ez dakit, eskola kiroletik. Hamabost bat bai. Urte asko.

**Bigarren igoera fasea lortuta, zer moduz dago taldea?**

Nire ustez orain ondo. Kosta egin zitzaigun denboraldi hasieran, jokalari berri asko etorri zirelako, eta azkenean, pieza berriak enkajatzea, akoplatzea ez delako erraza. Baina hilabeteen joan etorrian lortu dugu, eta orain ondo gaudela uste dut. Pieza berriekin ohitzea ez da erraza. Ni erdikoa naiz, eta Karra-rekin ederki moldatzen naiz –Egoitz Karrazedo, taldeko beste kapitaina–, badakit keinu bakoitzarekin zer esan nahi duen. Unai Lejardirekin, adibidez, kostatu egin zait. Mutilak sekulako kalitatea dauka, baina kimika egokia lortu arte denbora behar da, eta orain lortu dugula esango nuke. Alor fisikoari lehentasuna eman genion denboraldiko lehen hilabeteetan, jokalari berri asko genituelako, agian, eta alor taktikoari garrantzi gehixeago eman behar genion. Orain taldea ondo ikusten dut, konfiantzarekin. Joseba Errazkin ere osatu da, eta oso pieza garrantzitsua da guretzat, mutiko bat bada ere.

**Denboraldi hasiera ere berezia izan zen, bi talde egin behar izan baitzenituzten jende asko zinetelako.**

Berezia ez dakit, naturaltasunez bizi izan genuen egoera. Talde bat Gipuzkoako Lehen Mailan lehiatuko zen, eta bestea Bigarren Mailan. Bereizketa ez zen traumatikoa izan, eta entrenatzaileak bere eskema zeukan, behar jakin batzuekin, eta kito, berak erabaki zuen ze jokalari nahi zituen Lehen Mailako taldean. Pertsonalki une gogorrak izan ziren niretzat. Bixen (Gorka Vicente), Erlaitz, Xabat… Bigarren Mailako taldean ari dira, eta ni beraiekin aritu izan naiz bizitza guztian… Edo Josu Irigoien atezaina bera, oso giro ona sortzen baitu. Klubaren lehentasunak finkatu ziren, eta Bigarren Mailakoak Lehen Mailara igotzea zuten helburu, eta Lehen Mailakook 2. Nazional Mailara.

**Denboraldia irregular samarra izan da…**

Hasieran dena ondo joango zela pentsatzen genuen. Kimikarik gabe ari ginen, baina irabazten. Baina Bidasoarekin galdu genuen, atsedenean 6 gol aurretik izanda, eta porrot horiek mina egiten dute. Pasa zaigu bizpahiru partidetan: mantsoago jokatzen hasi, minutuak aurrera egiteko, eta galdu.

**Gazte askoko taldea duzue, baina eskarmentu handiko jokalariak dituena ere bai.**

Blokea oso gaztea da. Usurbilen Nazional Lehen Mailan arututakoak dira gazte asko, baina gaztetasunaren eskarmentu falta hori urteekin irabazten da, jokalari onak izanda ere. Bloke berri bat egitea beti da zaila, partidak erabakitzen direnean halako urduritasuna sumatzen da. Orain bi urte jokatu genuen igoera fasearen aurreko partida orekatuak irabazi egiten genituen, bazegoen hor kimika berezi bat. Denboraldi honetan falta zaigu segurtasun hori.

**Eta nabarituko al da, segurtasun falta hori, igoera fasean?**

Ez dakit, ze guk, normalean, neurri onena sailkapeneko goialdean dauden taldeen aurka eman izan dugu. Akatsak gu baino okerrago zeuden taldeen aurka izan ditugu, eta dagoeneko, ez dugu horien aurka jokatuko. Onenen aurka beste jarrera bat erakutsi dugu, hasi eta bukatu arte egurrean, eta horrek konfiantza ematen dit.

**Zozketarekin gustura zaude, ezta?**

Bai, Legazpiren aurka etxean jokatzen dugulako, eta han ez jokatzea gauza ona da. Ikaragarria da hango giroa, nola babesten duten taldea, eta han irabaztea oso zaila da edozein talderentzat. Legazpiren aurka etxean jokatzea gauza ona da. Gipuzkoako taldeen aurkako emaitzak errepasatuz gero, emaitzak nahiko onak dira. Munttarperen aurka biak galdu ditugu, baina gol bat eta hiru goleko aldearekin. Bergararen kontra han galdu, egun txarra izan genuelako, eta etxean berdindu, baina sailkatuta geundenean, eta Legazpiren aurka, etxekoa irabazi, eta Legazpikoa berdindu. Bizkaiko taldeen inguruan ez daukagu erreferentzia handirik. Etxean Legazpi eta Leioako Askartza ditugu. Legazpiri 10 goleko errentarekin irabazi genion, ikusiko dugu Askartzaren aurka. Gustuko dut, era berean, ligatxoko lehen hiru partidak gipuzkoarren aurka izatea. Alegia, ezagutzen ditugun taldeak. Lehen bi partidak irabaztea funtsezkoa da. Bergaran lehenengoa, maiatzaren 1ean, eta Legazpiren aurka, maiatzaren 4an Urnietako kiroldegian.

**Eta bizkaitarrekin zer egin behar duzue?**

Ba Legazpi, Bergara edo Lezon jokatuko dituzten partidak ikusten saiatu, halako scouting edo azterketa bat egiteko.

**Ligatxoko garailea zuzenean igotzen da, baina sei taldetatik bakarra geratzen da aukerarik gabe. Beste lauak halako Lauko Finala jokatuko duzue. Horrek lasaitasuna ematen al du?**

Beno, nik igoera zuzena lortu nahi dut, eta hala ez bada, bigarren postua eskuratu, bigarren geratzen denak derrigor Lauko Final edo kanporaketa horiek antolatu behar dituelako, ekaineko lehen asteburuan.

**Zein da UKE-ren erronka?**

Ligatxoa irabaztea. Azken asteetan izan ditugun solasaldietan-eta garaipen gosearekin ikusten dut taldea, eta taldeko jokalari beteranoenek ere hori diote.

# SANTA KRUTZ JAIAK 2019 ANDOAIN

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

# Pregoia Aiurriren eskutik

1994ko udaberrian abiatu zen Aiurri. 25 urte hauetan aldizkaria zena hedabide taldean bilakatu da. Erredakzio taldeko kideek jaiei hasiera emango diote, apirilaren 30ean

**Erredakzioa** ANDOAIN

Haurrek arratsaldean pregoia irakurri eta gero, helduen pregoia iluntzeko 19:00tan iritsiko da. Apirilaren 30ean izango da, asteartearekin. Jai Batzordeak jaiei hasiera emateko ohorea Aiurri tokiko hedabideari eskaini dio aurten. Eurak izan dira albistea ematen lehenak albistea, auzoan banatu duen egitarauaren bitartez. Belokiren bertsoak egin du iragarpena:

"Festak noiz diren begira gaude
egutegietan sarri.
Egitaraua eskutan duzu
denentzat interesgarri.
Agurrarekin hasiko gara,
lepotik helduz elkarri.
Txupinazoa botako dunak
eman ditu hainbat berri,
egin duzuen guztiagatik
eskerrik asko Aiurri".



Jaiei hasiera apirilaren 30ean izango da. AIURRI

Martxoan 25 urte bete dira Aiurri maiztasunez argitaratzen hasi zenetik. Orduko aldizkari hura hilabetekaria izan zen, gerora Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskari bilakatu zena.

Hogeita bost urteotan aldizkaria hedabide talde bilakatu da. Aiurri astekaria, Aiurri hamaboskaria eta Aiurri.eus webgunearen bitartez urte osoko gertaerei jarraipena ematen zaio.

Olajauna eta Zubiaurre etxea, jaiei hasiera emateko bi gune nagusiak. AIURRI

## Pregoilariak azken 25 urteotan

1994 Mikel Iradi.
1995 Pedro Jauregi.
1996 Aitor Mendiluze.
1997 Ixiar Etxeberria.
1998 Luxio Aranburu.
1999 Pako Etura.
2000 M.Sorkunde Etxezarreta.
2001 Ixiar Oreja.
2002 Luis Mari Arnaiz.
2003 Xabier Lekuona.
2004 Nagore Zipitria.
2005 Pako Arnaiz.
2006 Juanma Barcina.
2007 Maria Jesus Fernandez.
2008 Pedro Unanue.
2009 Ramon Ansa.
2010 Joxean Barandiaran.
2012 Olinpiapopularrak.
2013 Urki dantza taldea.
2014 1964ko emakumezko danborjoleak.
2015 Auzoko dendariak.
2016 Katramila antzerki taldea.
2017 Txindoki taberna.
2018 Maiatzaren 3ko bluxadunak.

# Koadrilen eguna

Aurtengoan larunbatarekin egingo dute ospakizuna, goizean hasi eta biharamunera arte luzatuko dena. Auzo bazkaria, aldiz, Santa Krutz egunera aurreratu dute

**Erredakzioa** ANDOAIN

Ostiralarekin ospatu zuten Koadrilen eguna, 2018an. Eta auzo bazkaria, berriz, larunbatarekin. Aurtengoan bi hitzorduak egunez aldatu dituzte. Koadrilen eguna larunbatarekin ospatuko da (maiatzak 4), aurten. Jaietako egun seinalatua da, andoaindarren artean parte hartze handiena pizten duena. Jolasekin ekingo diote egunari, txaranga doinuak gertu dituztela. Bazkarian ehunka lagun elkartuko dira, eta haietako asko arratsaldeko kalejira ibiltarian murgilduko dira. DJ Mai disko jartzailea iragarri dute aurten, azken urteetan langintza horretan aritu den DJ Bull ezagunari lekukoa hartuz. Ospakizunak txosnagunean jarraipena izango du, Karaoke saioarekin eta Ingoaldeu? eta DJ Eman Emak emanaldiarekin. Larunbateko festazale askok bat egingo dute igande goizean, "Gaupaseroen argazkian". 08:00tarako iragarrita dago, Danena ondoko plazatxoan.

Uribesalgo kantari, iazko koadrilen eguneko bazkalosteko saioan. AIURRI

**Auzo bazkaria, ostiralean**

Azken urteotan indarra hartuz doa, geroz eta festazale gehiago hurbiltzen baitira Kale Nagusiko bazkarira. Bereziki haur txikiak dituzten familien kasuan.

Aurten ere kanpainaren pegatinak banatuko ditu Andoaingo Udalak. AIURRI

## "Ez ezetz da" kanpaina martxan

Sexu erasoen aurkako kanpaina berria abiarazi du Berdintasun sailak, urteko jai guztietara zabalduko dena

**Erredakzioa** ANDOAIN

Festazale askoren paparrean ikus zitezkeen Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak sustatu zuen "Ez ezetz da" kanpainaren pegatinak. Eta ez soilik Santa Krutz jaietan. Urte osoan zehar, San Juan jaietan eta auzoz auzoko jaietan, andoaindar askok kanpainarekin bat egin zuen. Sexu erasoen aurkako sentsibilizazioan sakondu beharra dago, eta aurten ere kanpaina beretsua errepikatuko da. Taberna eta txosnagunean erasoen aurrean zer egin eta nola jokatu azaltzen duten eskuorriak eta karteltxoak banatuko dituzte.

# SANTA KRUTZ JAIAK 2019

## APIRILAK 30

### ASTEARTEA
**JAIEN HASIERA**

**16:00** Haur pregoia Zumea plazan.

**16:30** Txokolate jatea Zumea plazan.

**17:00** Judo eta Karate erakustaldia Zumea plazan. Euriarekin Ondarretan.

**19:00** Buruhandi eta erraldoien kalejira, Basterotik hasita.

**19:00** Gora Kaletxiki txaranga, Zumea plazatik hasita.

**19:00** Zumeatarra elkartearen danborradaren hasiera.

**19:30** Pregoia Zubiaurren, Aiurriren eskutik.

**20:00** Txosnen irekiera. Jarraian kontzertua Txosnagunean: Tokan2 La Polla.

**20:00** Andoaingo Olagain udal txistulari elkartearen eta Alberto Agirre abesbatzaren kontzertua Santa Krutz elizan.

**23:00** Kilimak taldearen kontzertu Txosnagunean.

**01:30** DJ saio feminista Txosnagunean, Andoaingo Asanblada Feministaren eskutik.

Erraldoiak eta buruhandiak jaiaren hasieran irtengo dira kalera. AIURRI

## MAIATZAK 1

### ASTEAZKENA

**10:30** XXXIII. Kros herrikoiaren irteera. Bixente Huizi memoriala.

**11:30** Haur Krosa.

**12:00** Txirrindulari lasterketa, Leizaur parkean.

**12:00** Txalaparta saio ibiltaria eta bertso poteoa Zumea plazatik hasita.

**17:30** Erreka jaitsiera, Etxarritik hasita. Partaideak 16:00tan elkartuko dira Bekoplazan, baltsak jaso eta Olazar aldera abiatzeko. Kaskoa eramateko aholkua luzatu dute antolatzaileek.

**18:30** Puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin Ondarretan.

**18:30** Herri danborrada Bekoplazatik hasita.

**19:00** Auzo arteko herri kirol liga, Bekoplazan.

## MAIATZAK 2

### OSTEGUNA

**18:30** Bizikleta festa Zumea plazan.

**19:00** Pintxo Lehiaketa.

**19:00** Txistulariak Kaleetan zehar.

**18:30** Txukunak eta Fino's Band Udal musika eskolako konboak Zumea plazan.

**21:45** Zezen suzkoa Olajauna paretik Juanita Alkain plazaraino.

## MAIATZAK 3

### OSTIRALA
**SANTA KRUTZ EGUNA**

**10:30** Dultzaineroen kalejira.

**10:30** Ikurriñaren jaitsiera, eskopeteroak eta Olagain txistulariak alboan dituztela. Udaletxetik Santa Krutz elizaraino.

**10:30** Ezpata dantza Santa Krutz elizan.

**11:00** Meza.

**11:30** Ezpata eta Brokel dantzak Santa Krutz elizaren parean.

**11:30** Trikitilariak kaleetan zehar.

**12:00** Txakoli dastaketa elizaren parean.

**14:00** Auzo bazkaria Kale Nagusian. Bakoitzak bere bazkaria eraman behar du. Euriarekin Makaldegiko aterpean.

**18:00** Elektrotxaranga Kale Nagusian.

**19:00** Elkarteen arteko bakailao txapelketa Kale Nagusian.

**23:00** Kontzertua: Niña Coyote & Chico Tornado eta Inoreneroni.

Elkarteen arteko bakailao txapelketa, ostiral arratsaldean. AIURRI

## MAIATZAK 4

### LARUNBATA

**09:30** Haur mailako arrantza lehiaketa Espigoian. Federatutako txartela ez duenak txartela bertan ateratzeko aukera izango du.

**10:00** Artisauen Azoka Zumea plazan.

**11:00** Koadrilen arteko jokoak, Bekoplazatik hasita.

**14:30** Koadrilen arteko bazkaria Bekoplazan edo Ondarreta ikastetxean.

**17:30** DJ Mai saio ibiltaria.

**18:00** Haur tailerrak, jolasak eta puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin Ondarreta Ikastetxean.

**20:30** Karaoke saioa Txosnagunean.

**21:45** Zezen suzkoa, Olajaunatik Juanita Alkain plazara.

Plaza dantzekin amaiera emango zaie aurtengo Santa Krutz jaiei. AIURRI

**22:30** Peña Santakrutz danborrada.

**22:30** Ingo al deu? eta DJ Eman Emak txosnagunean.

## MAIATZAK 5

### IGANDEA

**08:00** Gaupaseroen argazkia Zumea kaleko lorontzietan.

**09:00** Euskalduna MTren irteera. Egoitzatik bertatik abiatuta.

**11:30** Urkiren saioa Zumea plazan.

**12:00** Kantu kalejira, Basterotik.

**12:00** Sagardo lehiaketa Zumea plazan.

**12:00** Basataloak talogileak Zumea plazan.

**13:00** Udal musika eskolako Bandaren saioa Zasa parean.

**17:00** Soinuak taldea, Basterotik.

**18:30** Plaza dantzak Zumea plazan.

Iazko erreka jaitsiera Santa Krutz jaietan. AIURRI

## Erreka jaitsiera maiatzaren 1ean

Jaia eta aldarrikapena uztartzen dituen ekitaldia da, Eguzki talde ekologistak antolatzen duena

**Erredakzioa** ANDOAIN

Aste honetan bertan erreka jaitsiera antolatzeko bilera deitu dute. Jaitsierak ikusmin handia piztu du andoaindarren artean. Maiatzaren 1ean 17:30ak aldera iritsiko dira Santa Krutz elizara. Parte hartzaileei Bekoplazara 16:00tarako agertzea eskatu zaie. Bertan baltsak jasoko dituzte, Olazar aldera eramateko. 16:45etan ekingo diote baltsa jaitsierari.

**Hitzordu klasikoa**

Urtez urte, erreka jaitsiera antolatzeari eusten diote. Goitibehera proba, ordea, 2011n antolatu zen azken aldiz.

# Pintxo lehiaketa

Errotuz doan ekitaldia da, zazpigarren edizioari ekingo baitiote aurtengo jaietan. Maiatzaren 2an, ostegunarekin, ez ohiko pintxo landuez gozatzeko aukera izango da.

**Erredakzioa** ANDOAIN

Ostegunean pintxoa eta potea elkar loturik doaz. Are gehiago, Santa Krutz jaietan. 2013az geroztik pintxo lehiaketa antolatzen da, tabernen eta herrikideen parte hartze handiarekin. Egitarauan errotuz doan ekitaldia da. Aurreko edizioei begirada jarrita, palmaresean Bastero kafetegia nagusitzen da. Sei edizioetatik hirutan nagusitu da, bereziki azken urteotan. Hauexek dira lehiaketa martxan jarri zenetik, pintxo lehiaketako irabazleak: Urkiola (2013), Traiñerum (2014), Bastero (2015), Hiru (2016) eta Bastero (2017 eta 2018).

Epaimahaikideak Bastero tabernako irabazleekin, iazko jaietan. AIURRI

**Elkarteen arteko bakailao txapelketa**

Bada jaietan janaria eta lehia uztartzen dituen beste lehiaketa: Elkarteen arteko bakailao lehiaketa. Irunberri elkarteak antolatuta, Kale Nagusian bertan egiten da.

Azken urteotako saridunak hauexek izan dira: Ontza (2018), Andoaindarra (2017), Batzokia (2016 eta 2015) eta Kotoi (2014).

# Kantu berriekin datoz

Ostiral gauean Niña Coyote & Chico Tornado taldeak zuzeneko indartsua eskainiko du Txosnagunean. Haiekin batera Eneko Abrego buru duen Inoreneroni taldea

**Erredakzioa** ANDOAIN

Rock talde ezagun eta indartsuen emanaldiak antolatzeko joerari berrekin dio jai batzordeak. Atom Rhumba taldeak iaz emanaldi gogoangarria eskaini eta gero, aurtengoan antzekoa gerta daiteke Niña Coyote eta Chico Tornado bikotearekin. Doinu elektrikoak eta biziak landu ohi dituzte, eta jaietan "Aitzstar" lan berria aurkeztera datoz. Taldeak tokia lortu du estatu mailako agertokietan eta jaialdietan. Hara eta hona eramango dituen aurkezpen biran, Andoainen dute hurrengo geltokia.

**Inoreneroni**

Eneko Abrego herrikideen aurrean zuzenean ikusteko aukera paregabea izango da, Inoreneroni taldeko abeslaria baita.

Coyote eta Tornado "Aitzstar" disko berria aurkeztera datoz Andoainera. AIURRI

Une zirraragarria izaten da haur eta gaztetxo askorentzat. AIURRI

## Zezen suzkoa, maiatzaren 2an

Larunbat gauean, afalostean, Olajauna paretik Juanita Alkain plazarainoko ibilbidea egingo dute

**Erredakzioa** ANDOAIN

Haur eta gaztetxoentzat magikoa da, Andoainen soilik Santa Krutz jaietan eta San Juan jaietan ikus daitekeena. Erraldoien eta Buruhandien konpartsen eskutik antolatzen da, zezen suzkoa soinean eraman ahal izateko baimen berezia behar delako.

Zezenaren aurretik, txinparta hotsak entzunez, korrika aritzeko une zirraragarria da.

**Erraldoiak eta buruhandiak**

Berreskuratu dituztenetik garrantzia handikoak dira Andoaingo jaietan. Jaien hasieran kalez kale ibiliko dira.

# EZ EZETZ DA

## JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!

EZ IZAN KONPLIZE

ANDOAINGO UDALA

## ZER EGIN ERASO SEXISTA BATEN AURREAN

- Eraso sexista bat ematen ari dela ikusten baduzu, erasoa jasaten ari denarengana jo eta laguntzarik behar duen galdetu.
- Lehentasuna duen kontua da, beraz, eten une horretan egiten ari zarena eta erasoa jasaten ari den emakumeari egin kasu.
- Lasai egon daitekeen leku batera eraman eta laguntza eska dezakeela esan. Arreta handiz entzun eta ez jarri zalantzan kontatzen duena.
- Erasotzailearekin hitz egin, eta argi utzi ez dela jarrera sexistarik onartzen taberna edota txosnan eta bertatik kanporatu.
- Ez utzi erasotutako emakumea bakarrik eta, beharrezkoa izanez gero, lagundu dagokion tokira.
- Erasoa LARRIA bada: jakinarazi ez duela arropaz aldatu behar, ezta bere burua garbitu behar ere, eta aho bortxaketa bada, ez duela jan edo edan behar, erasotzailea identifikatzeko eta zigortzeko frogak desagerrarazi daitezkeelako.
- Gerta daiteke emakume batek une horretan erabakitzea ezer ez egitea, edo ez jakitea zer egin nahi duen. Edozein kasutan hurrengo telefono zenbakiak eman, alboan eskuinaldean ageri direnak:

**Udaltzaingoa: 943 300 819**

**Berdintasun arloa: 943 300 830 ext 397**

**Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343**

**Osasun Zentroa: 943 006 670**

**Ospitala: 943 007 000**

**Larrialdiak: 112**

**Satevi: 900 840 111**

Helburu nagusia dute urnietarrek, igoera jokatu eta eskuratzea. JUANCARUKE

**Zenbat garaipen behar dira ligatxoa irabazteko?**
Lau garaipenekin nahikoa izan liteke. Bostetik lau, parekotasun handia egongo delako.
**Bostetik lau. Ez al da asko?**
Baliteke… Baino lau lortzen dituenak igoera lortuko du.
**Nolakoa izan da zure denboraldia?**
Beno, entrenatzailearen jarraipena izan naiz kantxan. Erasoan bakarrik jokatu dut, defentsan aulkian egon naizelako ia beti. Horrek erasoan freskoago egotea eragin du. Bere alde txarra ere badu, defentsan jokatzen ez baduzu tentsioa galtzeko arriskua dagoelako. Karra-rekin egiten dut aldaketa, eta ondo moldatzen gara.
**Zer suposatzen du zuretzat igoerak?**
Dena! UKEk ez du inoiz halakorik lortu, eta kristorena litzateke. Ez dut eskubaloia utziko, igoera hori lortu arte. Eta aurten daukagun talde puskarekin aukera hori ez gauzatzea akats handia litzateke.
**Eta zer suposatuko luke 6.500 biztanleko herri batentzat Eskubaloiko 2. Nazional Mailan eskubaloi talde bat izatea?**
Lorpen handia. Gero, agian, kristoren muturrekoa hartzen duzu, eta berriro maila galdu, oso talde onak daudelako 2. Nazional Mailan, baina bi urte atzera, igoera fasean ikusi genuena errepikatzea nahi nuke. Alegia, kiroldegia beteta ikustea, inoiz eskubaloia ikustera joan ez den urnietarra harmailetan ikustea, taldea animatzen. Askotan Zarautz edo Legazpira joaten zara, eta inbidia sanoa sentitu, han herria nola inplikatzen den eskubaloi taldearekin, harmailak lepo beteta, zure koadrila guztia han animatzen… Oilo ipurdia jartzen zaizu!
**Zerbait badabil herrian…**
Hala entzun dut, bai. Inoiz ez zait ahaztuko, orain bi urte, Ordiziaren aurkako partida. Galdu egin genuen, baina partida bukaeran bi taldeak hurbildu ginen harmailetara txoko batean zeuden dozenaka gazte haiengana, euren laguntza eskertzera, eta benetan, ikaragarria izan zen. Partida betean tentsio ikaragarriarekin zaude, baina animoak entzuten dituzu, eta sekulako indarra ematen dizute. Nik gutxitan gozatu izan dut orduan bezala. Horrelakoak bizitzeko aukera hutsa izatea ikaragarria da.
**Oso jokalari ona zara, eta Urnietatik mugitzeko aukeraren bat izan duzu, mailaz igotzeko, baina ez zara mugitu. Zergatik?**
Beno, aukera aukera... Probatu, agian. Jokatu, ez dakit. Urnietakoa naiz, nire koadrilako lagunak ditut alboan lan saioetan, eta non hobe, etxean baino? Nire herriko taldearekin jokatu nahi dut 2. Nazional Mailan.

**Ligaxka maiatzean**
- V.1 Bergara-UKE
- V.4 Urnieta-Legazpi
- V.11 Munttaper-Urnieta
- V.18 Escolapios Bilbo-Urnieta
- V.25 Urnieta-Askartza

## Iturzaeta pala txapelketan parte hartzeko deialdia

AIURRI

**PALA** Iturzaeta pala txapelketa herrikoian parte hartzeko izen ematea zabalik dago, datorren maiatzaren 3ra bitarte. Txapelketa maiatzaren 10ean hasiko da eta partidak larunbatero Andoaingo Sorabilla auzoan jokatuko dira. Izena emateko bi modu daude: E-postaz (iturzaeta.memoriala@gmail.com) eta telefonoz (636 133 897).

Aurten ere finalaren aurretik partida berezi bat jokatuko dela iragarri du antolaketak: "Partaide guztien artean zozketa bat egingo dugu, finalaren aurretik partida bat jokatuko dutena".

## Zanpatuz mendi elkartearen irteera maiatzaren 4an

AIURRI

**MENDIZALETASUNA** Burgos eta Araba arteko eremuan mendi irteera antolatu dute urnietarrek. Orbañanos herritik abiatuko dira Humion (1436 m) mendira. Hortik Peña Flor (1339 m) eta Mancubo (1184 m) mendietatik barrena jarraituko dute. Gailur guztiak zapaldu eta gero Orbañanos herrira itzuliko dira. Irteera maiatzaren 4an izango da. Ohi bezala, Matxo tabernaren paretik abiatuko dira goizeko 07:30ean. Parte hartzaileek apirilaren 30a baino lehen izena eman behar dute, Ikasmin akademian edo Kantoi tabernan.

## Herriartekoa maiatzeko lehen asteburuan hasiko da

AIURRI

**PILOTA** Amasa Villabona-Andoain partida jokatuko da Gipuzkoako Herriarteko eskuzko txapelketaren lehen kanporaketan. Maiatzeko lehen asteburuan joanekoa Villabonan jokatuko da, eta itzulikoa astebete beranduago Arrate pilotalekuan.

Eskuzkoa ez da jarduera bakarra izango. Andoain herriak palan eta goma jardueretan ere talde bana aurkeztuko du. Bi kasuetan Errenteria izango dute aurkari.

Ez ohiko txapelketa da Herriartekoa, ez baita kluben arteko lehia.

## Brontzea Pau hirian

**PILOTA** Andoaingo Gazteleku pilota elkarteko Xabi Alkorta, Koldo Ponce eta Irungo Markel Mutuberriak ordezkatu dute Gipuzkoa, Pau hirian jokatu den txapelketan. Apirilaren 19tik 22ra gazteen arteko larruzko paleta txapelketa jokatu zen, Araba, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Zuberoa, Landak, Toulouse, Pau eta Islas Reunioneko ordezkariekin.

GAZTELEKU

## Multzoko onena

**ESKUBALOIA** Infantil mailako Leizaran Urdinak taldeak Foru Aldundiko txapelketan multzoko lehen postua ziurtatu du, ligaxka bikaina egin eta gero. Hamar partidatik zortzi irabazi dituzte. Helburu polita dute aurrean, beste multzoko onenaren aurka jokatu eta txapelketa eskuratzea. Denboraldia borobiltzeko aukera bikaina dute.

JOSEMA FERNANDEZ

# HITZORDUAK

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 25

**ANDOAIN Informazioa**
Ataria, Zerga bilketa eta hondakinen informazio puntua tokiz aldatu dituzte.
***Anbrosia Olabide.***

**URNIETA Aisialdia**
Sukaldaritza tailerra (2010-2008).
***11:00-13:00, Denda Berri.***

**ANDOAIN Aisialdia**
Sukaldaritza tailerra.
***17:30, Gazte Lokala.***

**URNIETA Izen-ematea**
Eguzkitan Blai! eta Kirol Udalekuetan izena emateko epea zabalik Bertan bulegoan, Lekaion eta webgunean.
***Azken eguna: Maiatzak 7.***

**ANDOAIN Erakusketa**
"Emeek emana", argazki erakusketa.
***Ohiko ordutegia, Bastero.***

## OSTIRALA 26

**URNIETA Aisialdia**
Bisitaldia Albaolara (2013-2008).
***09:15, Irteera San Juan plazatik.***
Tiritirantes zirko tailerra
***17:00-19:00, San Juan plaza.***
**ANDOAIN Arropa tailerra**
***17:30, Gazte Lokala.***

## LARUNBATA 27

**ANDOAIN Aisialdia**
Irteera Zaragozako atrakzio parkera.
***08:30, Irteera.***

Haur pregoia, iazko edizioan. AIURRI

**ANDOAIN Santakrutzak**
Haur pregoiarekin hasiko dira jaiak Zumea plazan, eta txokolate jatearekin jarraipena izango dute. Gehigarri berezia erdiko orrialdeetan.
***16:00. Apirilak 30, asteartea.***

## IGANDEA 28

**ANDOAIN Aisialdia**
Askaria Gazte Lokalean.
***17:30, Gazte Lokala.***

## ASTELEHENA 29

**ANDOAIN Entseguak**
Santa Krutz jaietako danborrada prestatzeko azken entsegua. Ohi bezala, Leizaran jatetxearen ondoko lokalean elkartuko dira. Herri danborrada maiatzaren 1ean irtengo da, Santakrutz Peñakoa 3an.
***19:30, Peña Santakrutz.***
***20:30, Herri danborrada.***

**URNIETA Bilera**
EH Bilduk bilera irekia antolatu du, maiatzaren 26ko Udal hauteskundeei begira lanean jarraitzeko. Estatuko hauteskundeen balorazioa eta kanpainarako agenda aztergai izango dituzte.
***19:00, EH Bilduren egoitza.***

## OSTEGUNA 2

**URNIETA Sari banaketa**
Urnietako Udalak antolatuta, haur, gazte eta helduen mailako Antia literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldia.
***19:00, Sarobe.***

## ZINEMA



**ANDOAIN**

BASTERO

**Dumbo**
Lar, 27: 17:00.
Ig, 28: 17:00.

**Soinujolearen semea**
Lar, 27: 19:30, 22:00.
Ig, 28: 19:30.
Ast, 29: 19:30; 22:00.

**URNIETA**

SAROBE

**Ploey:**
Igandea, 28: 17:00.



### SINOPSIAK

**Dumbo**
**Zuz.:** Tim Burton. **Herr.:** AEB (2019). **Hizkuntza:** Gaztelania.
**Aktoreak:** Colin Farrell, Michael Keaton, Danny DeVito, Eva Green.
**Iraupena:** 111 minutu.

### Ipuin ezaguna zineman

Tim Burton zinema zuzendariaren esku utzi du Disney etxeak remake-a egiteko ardura. Ekoizpenari dagokionez, apustu handia egin dute.

**Ploey ez duzu inoiz bakarrik hegan egingo**
**Zuz.:** Arni Asgeirsson. **Herr.:** Islandia (2018). **Generoa:** Komedia. **Hizkuntza:** Euskara. **Ekoizpena:** islandia, Belgika. **Iraupena:** 83 minutu.

### Hegan egitea helburu duen txoria

Udazkenean, bere familiak emigratzen duen garaian, txoria oraindik ez da hegan egiteko gai. Hori dela eta, Artikoko negua pasatu beharko du, etsai basatiei aurre egin, hurrengo udaberrian familiarekin bat egiteko.

**Ataria, Zergabilketa eta hondakinen zerbitzuak lekualdatu egin dira udaletxeko obrak direla eta**

Apirilaren 1etik aurrera, Ataria Herritarren Arreta Zerbitzua eta hondakinen inguruko informazio zerbitzua Anbrosia Olabideko eraikinaren sarreran egokitu dira (Jubilatuen tabernaren ondoan).
Eta Zergabilketa zerbitzua, berriz, eraikin bereko hirugarren solairuan.

Ataria

ANDOAINGO UDALA

## ZORION AGURRAK

ANDOAIN
**Aimar**
Dagoenekoz 11urte. Beti bezain alai jarraitu. Mila muxu etxeko guztion partetik.



ANDOAIN
**Oier**
Oierrek 7 urte bete zituen apirilaren 19an. Zorionak politta eta ondo ospatu!

ANDOAIN
**Malen**
Zorionak Malen. Apirilaren 25ean 12 urte beteko dituzu, egun polita igaro dezazula. Muxu handi bat.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

**www.aiurri.eus**
**webgunea**
"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

**diseinua@aiurri.eus**
Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.
**Arantzibia 4-5, behea. Andoain**
943 300 732.
**Whatsappez:**
619 16 35 37
Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDOAIN**

**Larunbata 27 eta igandea 28**
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

**URNIETA**

**Larunbata 27 eta igandea 28**
AIZPURU: Latxunbe berri, 11.
943 336 077. Hernani.
**GAUEZ: ALDABE.** Hernani.

Lurrazpiko pasabidea ireki zutenean, 2013an. AIURRI

# Andoaingo lurrazpiko pasabidea

Udalak pasabidea txukundu eta puntu beltz izaera saihesteko hainbat neurri hartuko dituela iragarri du

**Erredakzioa** ANDOAIN

'Kaleberritik Joakin Larreta etorbidera pasatzeko trenbideazpiko pasabidea gune beltz batean bilakatu da denboraren poderioz; batzuen portaera txarragatik igogailuak argirik gabe daude askotan, zikinkeria pilatzen da garbitu bezain laister eta segurtasun faltaren sentsazioa nabaria da". Egoeraz jabeturik, Udalak hainbat neurri hartuko dituztela iragarri du:

- Garbiketa sakona egingo dute, egoera txarrean dauden hainbat elementu berrituz.
- Segurtasuna zaintzeko kamerak jarriko dituzte.
- Pasabidean eraso sexisten kontrako murala jarriko dute.

Neurri horiekin guztiekin herritar askoren pasabidea gune segurua izatea espero dute. Era berean, gunea zaintzea eskatu diete herrikideei.

Arrula eta Esparza. AIURRI

## Literatur solasaldia Andoaingo Udal Liburutegian

**Erredakzioa** ANDOAIN

"Gu orduko hauek" liburuari buruzko solasaldia egingo dute Andoaingo Udal Liburutegian, "Literatur solasaldia" zikloaren baitan. Liburutegitik adierazi dutenez, idazlea bertan izango da. Apirilaren 30ean izango da, iluntzeko 19:00tan hasita. Txalaparta argitaletxeak horrela aurkeztu du liburua: "Zortzi ipuinez osatua da Garazi Arrularen lehen liburua, eta azken ipuinak ematen dio izenburua obrari. Gu pluraleko lehen pertsona da".

# Alderdi nagusien egitasmoak

EH Bilduk, EAJ-PNVk eta PSE-EE alderdiek hautes-programaren xehetasunak eskaini dituzte

**Aiurri.eus**
Udal hauteskundeak 2019

EH Bildu izan da hautes-programa aurkezten lehena. Hedabideetan eta sare sozialetan zabaldu duten 8 orrialdeko dokumentuaren bitartez, alor guztietako proposamenak luzatu dituzte.

PSE-EEk, hedabideetara bidalitako ohar baten bidez, hainbat ideia zabaldu ditu. Edukiontzi grisaren irekiera mugagabea proposatu dute, besteak beste.

EAJ-PNVk, bere aldetik, programari lotutako dekalogoa aurkeztu du. Trafikoa, hirigintza edota kirol arlokoak dira.

Aiurri.eus webgunea alderdi politikoen proposamenen berri ematen ari da.

**Hauteskundeak igandean**

Hauteskunde Orokorren emaitzak aiurri.eus webgunean eskainiko dira, igande gauean bertan.

andoaINDARRA euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
**Maketatzailea:** Maddi Trutxuelo.
**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
**Banatzaileak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnieta).
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.
**ISSN:** 1698-4870.
**Tirada:** 4.000 ale.
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ BAITZU MUGATUA
ALIATUAK: INISTERRE, TOKIKOM
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: ANDOAINGO UDALA, Urnietako udala
DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA: EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza
ZIURTAGIRIA: 2017 Bikain
BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es



# Azken agurra Manuel Berazari

Manuel Beraza Olabarrieta andoaindarra 72 urte zituela hil zen, apirilaren 20an. Azken hiru urtetan Kutxa Fundazioko presidentea izan zen. Ordurarte Mondragon taldean hainbat goi ardura eduk zituen. Asteartean azken agurra eskaini zioten Andoainen

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Kaletxikin izan zuen bizitokia Beraza Olabarrieta familiak. Luis Berazak eta Jazinta Olabarrietak zazpi seme eduki zituzten guztira. Zaharrenetik gazteenera: Manuel, Luis Mari, Ramon, Jexus Mari, Amador, Gurutz eta Xabier. Anaia guztien antzera, Manuelek ere La Salle ikastetxean ikasi zuen.

11 urte zituela Saturrarango apaiztegiko bidea hartu zuen. Bertan bi urte egin, eta Donostiako seminarioan jarraitu zituen ikasketak. 23 urterekin apaiztu, eta Eibarreko parrokiako zereginetara bideratu zuen Donostiako Gotzaitegiak. Bertan zazpi urte egin zituen, uztea erabaki zuen arte.

Euskaltzalea zen eta Ikastolako federazioak Nafarroako Abaigar herrian antolatzen zituen udalekuetan Amaia Arrese andereñoa ezagutu zuen. Harekin ezkondu, eta Beasainera joan ziren bizitzera. Bikoteak bi seme alaba eduki zituen, Garbiñe eta Iñigo.

Argazkian, Manuel Beraza Eneko Goia Donostiako alkatearekin eta Enrique Ramos zinegotziarekin ageri da, Egia auzoan Aldakonea eremuan hirigintza proiektua gauzatzeko Udalak eta Kutxa Fundazioak sinatu zuten hitzarmena aurkeztu zuten egunean, 2018ko uztailaren 10ean. IRUTXULO

Abadetza utziz geroztik, Manuel Berazaren lan ibilbide guztia kooperatibismoaren mugimenduarekin doa lotuta. 1977an Mondragon korporazioko kooperatiben munduan murgildu zen, eta lehenbizi automozio arloko Fagor Ederlan lantegiko hautaketa departamenduan jardun zuen.

Mondragon taldean segurtasun, erregulazio eta kontrol osagaiak ekoizten dituen Ordiziako Orkli lantegirako jauzia egin zuen ondoren. Lantegi hori zutitu zuen lan-talde kidea izan zen 1974an, hain zuzen. Bere zuzendari izatera iritsi zen 1986an. Besteak beste, berak zuzendu zituen Orklik Txinan eta Brasilen ireki zituen lehenengo filialen irekitze prozesuak.

2017tik aurrera Mondragoneko Osagaien Arloko Lehendakari ordearen ardurak hartu zituen.

### Langilea eta ekintzailea

Jexus Mari bere anaietako batek adierazi duenez, "gizon ona, langilea eta ekintzailea zen, eta berehala egin zuen bat kooperatiben filosofia humanista eta sozialarekin. Taldean lanean oso ondo moldatzen zen gizona zen, eta ikuspegi eta jarrera ezberdinak zeuden tokietan moderatzailearen eta bateratzailearen zereginak betetzeagatik zeukan irabazia ospea. Egia esan, balio handiko ezaugarri ugari zituen berarekin, eta horri esker nahiko urrun iritsi zen Mondragon kooperatiben munduan".

**"MANUEL BERAZA GIZON ONA, LANGILEA ETA EKINTZAILEA ZEN"**

JEXUS MARI BERAZA

## Kutxa Fundazioa

**MANUEL BERAZA OLABARRIETA**

1977an Mondragon korporazioko kooperatiben munduan murgildu zen, eta ibilbide oparoa egin zuen Ederlan eta Orkli enpresetan
Orain zazpi urte erretiroa hartu zuen, eta Donostian jarri zen bizitzen. Gizon ekintzailea izaki, berehala Kutxa Fundazioko lehendakariaren posturako izendatu zuten.

Kutxaren Gizarte Ekintzaren kudeaketa eta administrazioa da Kutxa Fundazioaren helburu nagusia. Bere jardueren artean, honakoak daude: garapen sozio-ekonomikoa, kulturala, artistikoa eta asistentziala eta ingurumen-garapena eta interes orokorreko beste xede batzuen lorpena helburu duten proiektu eta jarduerak sustatzea. Fundazio horretako batzordean beste andoaindar bat dago, Xabier Arberas Ezama hain zuzen.